


88 EKO PYRENAICA SARIKETAK



Ordosa.

Abenturarekin solasaldi bat

ARANTXA URBIETA

«Abentura menditan»
gaiari buruzko sariketaren
accesit, euskaraz.

Errekako uraren urratsak jarraituz basoaren barna sartu nintzen... non zaude abentura?

HAURTZAROTIK datorkit etxe abandonatuek misteriotsuki gordetzen duten sekretua arakatzeko griña. Telebistak eskeintzen zituen marrazki bizidunak baino atseginagoa gertatzen zitzaidan leku ezezagun hauek miatzea. Honela, asteburua heltzean, betidaniko taldetxoak elkartu eta erortzearen zauden etxe hauek saguzaharrak uxatzeaz gain, bertoko traste guztiak erotzen genituen... el-tze zulatuari ostikada bat... hautsez josiriko botila... **Krak!!!** eta trapu zaharrez baliatuz imaginazio eta fantasia hutsez hornituriko istorietak asmatu ere.

Goiz lainotsu, goibel batean gordeleku-tzat nuen etxe honetara itzuli eta..., sarre-rako atea irekirik, baina barrenean isiltasuna bizi da soilik. Halere, lurrean dagoen papertxo batek nere ikusmira iziotzen du. Eskutartean hartzean jabetu naiz papertxo bat ez, baizik argazki bat dela eta bertan, urrunean, zenbait mendi nagusitzen da. Argazkiaren pean, aldiz, ia ezezturik dauden ele hauek zilegi dira irakurri: **Abentura menditan...**

Bizitza bera hamaika aurpegidun abenturaz kutxaturiko bidai bat dugu, geltokiz osaturiko bidaia eta bertan «denboraren trenak» geldialdiak dagitza. Bidaiariek geltoki hauekako zenbait merkaturan beren txanpotoak uzten dituzte eta saltzaileek ozenki diote: Abentura Itsasoan!..., Abentura Herrian!..., **Abentura menditan!**...

Abenturaren alderdi hau ezezaguna zitzaidan, izan ere, abenturarekin harremanak izan, izan nituan, hor daude haurtzaroko pasarteak, baina herriari dagozkion pasarteak dira. Honela, abentura menditan oihukatzen zuen emakumearengana hurbildu eta txartel bat erosi ostean, iadanik zulatuak ditudan mendiko botak jantzi eta **Tipi-tapa... Tipi-tapa...** abenturaren eskuetan erortzearen abiatu nintzen apenas nere hamahiru urterekin.

Laino artean Aralar-eko zelai eta maldak zapaltzeak abentura zirudien. Jubilazio txartela eman behar dioten autobuseko eserlekuetan ia igandero geure atzekaldeak igurtzitzeak, betiko etxe erraldoiak atzean utzi eta artzai txabolak ezagutzeak izen bat zuen... **Abentura.**

Goiztiriko ihintzaren hezetasuna aienatuz, ortze urdinean nabegatzen ari den eguzkiaren irriparra sentitzea abentura zen. Berebilen zarata orde, txoriaren kantua, uraren kantua, haizearen lasterketa, hots, naturak eskeintzen dituen edertasunak dastatzea abentura zen.

Motxila bat eskuratzean, Aralar-eko mendiak ahantzi barik, gure ohizko kobazuloetatik irten ginen beste ingurune ba-

tzu dastatzearen: Aitzgorri, Durangaldea... eta taldetxo bat osatzean trabesiak gauzatzeko desiraz, Auñamendietara zuzendu (Belagua, Zuriza, Oza bailara...).

Trabesiren batean, apenas janariarik gabe eta haize hotzaren zaitadak jasanez, terrala dela eta errante gisara ibili ohi gara, haruntz-honuntz mozkorren eritmoa jarraituz, erortzearen desiraturiko artzain txabolaren bila. Basamortuan «oasi» bat aurkitu nahi duen gizon egarritsuaren imajin berbera zirudien hark.

Bai, oro abenturaren adierazle zen.

Janariaren eta materialaren zerrenda egitea abentura zen. Etxetik kanpora lo egitea abentura zen; izarraren babespean «vivac» egitea, egunsentiari leihoak zabaltzea... ordurarte ezezagunak ziren pasarteak, uneak bizitzea abentura zen. Haurtzaroan etxe abandonatuetara eginiko bisitalditxoak oroituz, kobazuloetako iluntasuna eta isiltasuna ferekatzea, edo eta, edozein paretatik zintzilikatutik ibiltzea abenturarekin solasaldi bat mantentzea zen.

Amak mendian zer egiten dudana galde-tzen didan bakoitzean zera diot: **Abenturarekin solasaldi bat...**


RESUMEN

De charla con la aventura

Desde muy pequeña me representé la aventura en una visita a una casa misteriosa abandonada y empecé a buscar la aventura en mis salidas al monte. La busqué en las nieblas de Aralar, identificándola con el canto de los pájaros, el canto del agua y los mil ruidos de la naturaleza. La seguí buscando a lo largo de las travesías por las otras sierras del país hasta llegar al Pirineo. Y la fui encontrando por todos los sitios, en frecuentes ocasiones, en los actos rutinarios de mis excursiones.

Lo que había empezado siendo el recuerdo de una visita a un caserón abandonado, la oscuridad de una cueva o un silencio acariciante, terminó llevándome a una conversación ininterrumpida con la aventura, cada vez que voy al monte.

Fotos: Jesús M. Alquézar.



Castillo
Acher.